

FIT&CHEAP

1. PORIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure taldearen proiektua kiroleko materiala alokatzeko denda bat izango da. Gure zerbitzuari esker, jendeak kirola egiteko ez du material berririk erosi behar, beraz, errazago eta merkeago praktikatzen ahal izango dute nahi duten kirolak. Maiz, materialak garestiak izan ohi dira edota egun batzuetarako ez du merezi kit osoa erostea; kasu horietarako aproposa izango da guk eskainitako zerbitzua. Gainera, bigarren mailako arazoia izan arren, merkatu honen esplotazioa alde batera utziz, bezeroek material berezia erabiltzeko aukera izango dute esan bezala, merkatu honetako langileen giza eskubideen urraketan sustatu gabe.

Aipatu bezala, eskainiko dugun zerbitzua kiroleko materiala izango denez eta urteko garaiaren arabera, praktikatzen diren kirol motak ezberdinak direnez, urtaroen arabera dendan egongo den materiala ezberdina izango da. Hala ere, material jakin batzuk urte osoan zehar mantenduko ditugu, badirelako kirol batzuk etengabe praktikatzen ohitura dagoena.

Jarraian urteko garaiaren arabera aipatutako materialak eskainiko ditugu:

- **NEGUAN:** Elurretan ibiltzeko materialak orokorrean (kaskoak, betaurrekoak, guanteak, berokiak, galtzak) eta ondoren kirol bakoitzean zentratutako materialak:
 - Eskiatzeko: eskiak, botak, makilak
 - Snowboard egiteko: tabla, botakBaita izotzetan ibiltzeko patin artistikoak eta izotzetako hockey-an ibiltzeko stickak eta patinak ere izango ditugu. Horrez gain, surfari ugari gustatzen zaienez neguan surfeatzea normalean jende gutxiago egoten delako eta itsasoak aukerak ematen dituelako olatu handiekin, neguko neoprenoak, burua estaltzeko neoprenoak, guanteak eta eskarpinak ere eskainiko ditugu.
- **UDABERRI-JDA:** Batetik, mendian ibiltzeko botak eta azken urteotan modan jarri diren makilak alokatuko ditugu. Bestetik, itsaso nahiz ibaian ibiltzeko materialak ere edukiko ditugu:
 - Lehenik, piraguak eta SUPeko tabla, hauek erabiltzeko palekin;
 - Bigarrenik, udako surfeko neoprenoak gain, tablak ere udan jende gehiagok praktikatzen duelako eta ondorioz eskaria handiagoa izango delako.
 - Hirugarrenik, flotadore eta baltsak eskaintzeaz gain, buzeatzeko aletak, betaurrekoak eta snorkel egiteko tuboak alokatzeko aukera ere izango dute gure bezeroek.
- **URTE OSOAN ZEHAR:** Gimnasioko materiala: pesak, esterillak, pisuak, gomak, salto egiteko soka, pilates egiteko baloia...